

Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa

MADARIAGA ORBEA, Juan
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Zalbide, M; Joly, L.; Gardner, N. (2015), Euskaltzaindia, 750 or.

Ohikoa izan da hizkuntzalariek egin dituzten ikerlanen lehentasunak euskararen barne azterketara bideratzea, arreta handiegirik jarri gabe hizkuntzaren historia sozialaren egoerari denboran zehar; guztiz zehatza ez bada ere, esan genezake, gai konkretu batek baino ez zuela beraien artean nolabaiteko interesa piztu: zergatik erori zen euskararen ezaguera eta erabilerera XIX. mendearen bigarren erdialdean, ordura arte mendeetan zehar higadura gutxiko egonkortasuna erakutsi bazuen? Historialariek bestalde, ez diote apenas arretarik jarri hizkuntzaren «kanpo historiari», hau da, bere erabileraren historiari, izan ere, orokorrean oso azaletik jorratu dituzte historia kulturalaren gaiak eta alderantziz, izugarrizko ahalegina egin dute beste batzuk aztertzerakoan: historia politikoa, ekonomikoa, demografikoa, juridikoa, etab. Zorionez, badirudi gauzak aldatzen ari direla eremu honetan. Hizkuntza, komunikazio faktorea ez ezik, imajinario kolektiboak erakitzeke osagarria, eta mundua ulertzeko modua ere bada, beraz, oinarritzko osagaia dugu gizartearen garapena ulertzeko bere dimentsio historikoan. Bere garaian bidegileak izan ziren Koldo Mitxelena, José María Jimeno Jurío, Aingeru Irigarai, José Maria Satrustegi, Ricardo Ciérvide, Julio Caro Baroja,

Euskera. 2015, 60, 2. 755-760. Bilbo
ISSN 0210-1564

Alfonso Irigoyen eta beste batzuk egin zituzten ikerlan klasikoei, azkenaldi honetan eremu honekiko ikerketa sentsibilitatea adierazi duten ekarpen berriak batu dira. Bestalde, gaur egun, diziplinartekotasun-lankidetzaz eza-gutzaren alor ezberdinetan ezinbestekotzat hartu behar dugu (batez ere linguistikaren, historia eta soziologiaren, baina baita ere antropologia soziala eta psikolinguistikaren artekoa).

Euskararen historia soziala berpizteko giro honetan, Euskaltzaindia barnean sortu zen 2007an «Euskararen Historia Soziala-Joanes Etxeberri» (EHS) egitasmoa; hasiera batean Joseba Intxaustik bideratu bazuen ere, egun ezinbesteko kideak dira aurkezten ditugun lanaren hiru egileak.

Hasiera hasieratik, egitasmoaren arduradunek garbi ikusi zuten aztertzen dihardugun ikerketa eremu zabal honi buruz egiten diren ikerketa puntualak gain, ezinbestekoa zela gai honi lotutako metodologia egokia sortzea, ikerlanei koherentzia eta zorrotasuna emateko. Azken hamar urte hauetan egindako lan sendoak eta sakonak argitara atera du azkenik metodologia bera. Beraz, eskuartean dugu ongi hausnartutako lan-saioa, kontrastatua eta behin baino gehiagotan berregindakoa, eta hala ere, ez zaigu aurkezten proposamen metodologiko itxi edo behin betikoa bezala, baizik eta etorkizunean hau hobetzeko beste proposamen batzuk eraikitzekeo tresna bat bezala.

Hasteko, iker-saio honetan aipagarriak iruditzen zaizkidan ezaugarri batzuk; batetik, EHSaren metodologia propio sortua eta berria izatearena nahiz eta nazioarteko produkzio soziolinguistikoaren (teoriko-praktikoaren) azterketa sakonean oinarritutakoa izan (batez ere Joshua A. Fishmanen lanean). Bestetik, ez da bakarrik aplikagarria euskararen kasuan, antzerako egoera soziolinguistikoan dauden beste hizkuntza guztiei aplikatu dakieke. Beste era batean esanda: iker-saio hau orotarikotasun eta nazioartekotasun bokazioarekin sortu da, nahiz eta etorkizunean euskararen eremura aplikatuko den gehienbat.

750 orrialdeko edukia hemen laburtzea ametsa litzateke, beraz, gutxienez leerro nagusiak azaltzen saiatuko naiz.

Edukien taula ondoren azaltzen den bezala egituratzen da. Sarrera orokorraz gain, bigarren atalak, nazioartean, soziolinguistika historikoaren in-

guruan egin diren lanak aztertzen ditu; atal honetan egileek ongi baino hobeto erakusten dute ikerketa klasiko zein egungoen inguruan duten eza-gutza sakona, bai behintzat ingelesez, frantsesez, zein gazteleraz argitaratu-takoena (Georg Kremnitz, Robert Mc Coll Millar, Juan Camilo Conde Silvestre, William Labov, Francisco Gimeno, Suzanne Romaine, Donald N. Tuten, Peter Burke, Joshua A. Fishman eta abar, eta abar). Hirugarren atalak, egitasmoaren abiapuntua azaltzen du. Laugarrenak, erabilitako metodologiaren laburpena aurkezten du ondorengoetan xehetasunez azalduko dena. Bosgarrenean datu bibliografikoekin zerikusia duen guztia biltzen da. Hurrengo lau atalak metodologiaren zatirik konplexuena azaltzeari eskainiak dira: informazio unitateak (EHSaren terminologian «aipuak») sailkatzeko irizpideak; seigarrenean, kokapen soziohistorikoa; zazpigarrenean, sailkapen soziolinguistikoaren egitura orokorra; zortzigarrenean, sailkapen soziolinguistikoaren egitura xehea eta bederatzigarrenean, aipuaren bali-indarra, fidagarritasuna eta aipuaren ezaugarriak. Hamargarren atalak EHS egitasmoaren iturriak aipatzen ditu eta hamaikagarrenak aplikazioaren funtzionamendua.

Bereziki hizkuntzaren ikuspegi soziala era diakronikoan nabarmentzea du helburu, hau da historikoan, alde batera lagatzeke xehetasun antropologiko eta psiko-soziologikoak. Horretarako EHSean lan eremu hau landu duten eskolak aztertzen dira: soziolinguistika historikoa, hizkuntzalaritza soziohistorikoa, hizkuntzaren historia soziolinguistikoa eta hizkuntzaren historia sozialaren arteko eztabaida teorikoak; azkenik ondorioztatzeko, frantsesaren eremuan Michel de Certeauk, Dominique Juliak eta Jacques Revelek eta ingelesaren eremuan Peter Burkek eta Roy Porterrek, «Social History of Language» iker-saioan proposatzen duten metodora hurbiltzea.

EHSaren berezko metodoaren helburu nagusia, bertako hizkuntzaren gizarte-dimentsio historikoa lantzeko baliabideak eskuratzean datza. Honen inguruko funtzionamenduaren ikuspegi laburtua laugarren atalean eskaintzen da (157tik 171rako orrialdeetan).

Hizkuntzari buruz egin nahi den azterketak honako ezaugarriak ditu oinarri: hizkuntzaren erabilera, honen perspektiba zinetiko eta diakronikoa, hizkuntzaren barne-egiturak denboran zehar izan duen bilakaera, hizkun-

tzari buruzko iritziak, jarrerak eta jokabideak eta azkenik hizkuntzaren produkzio-mota guztiak.

EHS-aren metodologiarekin egindako iker-saio bakoitzean hurrengo urratsak garatu behar dira: ikerburua erabakitzea, informazio iturriak azterzea, aipuek aukeratzea, aipuek markatzea, bilaketak egitea eta iker-saioa idaztea. Aipuek jatorri ezberdineko testu idatzien corpora osatzen dute: epaitegi-tako auziak, sermoiak, memoriak, diskurtsoak, eskutitzak, notario-tza aktak, inkestak, eguneroko idatzi pertsonalak, bidaiarien iritziak, testu literarioak, etab. Salbuespenak salbuespen, zatikatutako datuak dira eta murrizak, gutxitan lotzen zaizkionak hiztunen hizkuntzaren produkzio errealari. Testu hauetatik aipuek ateratzen dira. Testu-zatien mamia, informazioa sailkatzeko eredu (grille de lecture) baten gainean kudeatzen da.

Hasiera batean, alde batetik, sei azterbide definitzen dira: (1: deskriptiboa (gauzak nola dauden), 2: zinetikoa (gauzak nola aldatzen ari diren), 3: dinamikoa (gauzak zergatik aldatu izan diren edota zergatik aldatzen (ari) diren), 4: prospektiboa (goazen bidetik goazela, non bukatu behar dugu?), 5: kontrastiboa (egungo egoera gustukoa duten ala ez hiztun batzuek edo besteek) eta 6: preskriptiboa (helburura iristeko zer egin litekeen) eta bestaldetik, bost dimentsioak (A: hizkuntza erabilera, B: hizkuntza gaitasuna, C: hizkuntz(ar) en barne-osaera, D: gizarte-giroa eta E: iritzi-jarrera-jokabideak). Hamaika elementu hauek euren artean gurutzatuz, 30 gelaxkako oinarritzko matrize batean antolatzen dira. Horrela, gelaxka bakoitzak aipu bati buruzko informazioa aztertzen du. Adibidez: 2B = Erabilera aldaketa, 4C = Espero den hizkuntza, 6D = Gizarte-giroaren plangintza, 1E = jarrera azaltzea, etab. Oinarritzko matrize honen funtzionamendu-gakoak zeintzuk diren jakiteko, 255 orrialdetik 257 orrialdera dauden 21 eta 22 taulak ikuskatzea komeni da.

Aipu bakoitzak sailkapen lan konplexu eta sakona eskatzen du, dituen ezaugarriak eta eduki ditzakeen balizko azterketa-gaiak ahalik eta modurik zabalenean zehazteko: bere iturriari buruzko informazio bibliografikoa zehaztu, bere fidagarritasun-maila argitu, bere ezaugarri soziolinguistikoa identifikatu eta bere testuinguru historikoan kokatu. Bestetik aipuen sailkatze irizpideak hiru oinarri dituzte: balio-indarra, fidagarritasuna eta aipua-ren ezaugarriak. Hau da, aipuen datua esplizitua den ala ez, norainokoa den

aplikazio-ahalmena, datua egilearen interesen menpe dagoen, iturrien jatorrizkotasuna zein den, zein hizkuntza aipatzen duen, zein hizkuntzatan egi-na dagoen, etab.

Testu bakoitzak egiten digun informazio ekarpena, bere konplexutasuna-ren eta aberastasunaren araberakoa izango da, batzuetan gelaxka bati, hau da kontzeptu bati bakarrik eragingo dio, aldiz, informazio eremu desberdinei batera eragiten badio gelaxka ezberdinak markatuko dugu.

Adibide pare batek lagunduko digute aipuen markaketa metodoa gure-ganatzen. 1698ko Konstituzio Sinodaletan Calahorrako Pedro de Lepek horrela dio: «ay en la tierra Vazcongada, deste nuestro Obispado, diferencia en el Vazquenze del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcoa y Alaba», 1C gelaxkari dagokio, hau da, hizkuntza azaltzea/ hizkuntzaren barne-lotura/ fragmentazio maila. Konplexuago gertatzen zaigu 1919an Arturo Campionek idatzitako testua: «Débese esta más temprana erderización de los hombres á que muchos, salacencos bajan anualmente á la Ribera en su penoso y peligroso oficio de almadieros, ó á calidad de trujaleros (...). En cambio la corriente industrial de las mujeres se encamina á Larrau y Mauléon, donde se les proporciona trabajo de alpargatería, y en esos países de lengua baskongada, ellas no se contaminan de erdera como sus hermanos y maridos, los emigrantes al Sur». Kasu honetan aipamena honako hiru gelaxketan markatu behar genuke, 1A, 3A eta 3B: erabilera azaltzea, erabilera-aldaketen dinamika eta gaitasun-aldaketen dinamika.

Liburuari amaiera ematen dio, metodologiaren ezarpenari buruzko azalpenak jasotzen dituen atalak. Bertan aurkituko ditugu, arestian aipatutako 30 gelaxkei: 1A, 1B, 1C, ... 6D, 6E dagozkien 30 adibide, xehetasun handiz aztertutak eta bestetik, 336 adibidez osatzen den adibidetegia, zeinetan testu beraren ekarpenaz gain, bere testuinguru historikoa eta marka soziolinguistikoak aipatzen diren. Horretarako erabili duten materiala, neurri handi batean, azken urteetan EHS proiektuan parte hartu duten ikerlari ezberdinek egindako ekarpenetakoa izanda. Bestetik, datu bibliografiko ugari (orokorrak eta soziolinguistika historikoari dagozkionak) emateaz gain, EHSren hiztegi tekniko ere txertatua dago.

Beharrezkoa ikusten dut azpimarratzea batetik, egileek izan duten gaitasuna, kontzeptu bakoitzak, ezaugarri bakoitzak izan dezakeen ikuspegi eta ikerketa gai ezberdinak banatu, aletu eta xehatzeko; bestetik egin duten ahalegina, zehaztasun bakar bat ere ahazteke, ikerlari bakoitzaren etorriari edo bat-batekotasunari lekurik ez lagatzen. Honetaz gain testuak ahal den eta aurkezpen didaktikoena aurkezten digu, gai bakoitza aurkeztu, laburtu, poliki-poliki garatu eta tauletan txertatzeko. Lanak gaia sakon aztertzeke erakusten duen grinari gaineratzen badiogu ingeniarietza munduak gehitzen dion zehaztasuna, ordena- eta sistematizazio-gradu handi baten sentsazioa sortzen zaigu, itogarria ere izan daitekeena, humanitateek eskaintzen duten metodologia bigunagoetara ohituta gaudenontzat.

Laburbilduz, metodologiaren sistematizazio lan ikaragarri honek utzi digun emaitza hau da: metodologia propioa, egingarria, eta zalantzarik gabe, euskararen eta beste hizkuntzen historia sozialaren ibaietan murgildu nahi dutenek oso kontuan hartu beharrekoa.